

*Prestado a Roque Lasarte
uno igual que este
Yapen-Bilbailia. Tambien a Roque*

IDARTZAKO JAUNA

*Ondregarai, nai eta esin a
Thom, Alano*

JOSTIRUDIA EGINTZA BATEN

JOSE ELIZONDO-K IDATZIA

eta Elgoibar-ko euskal-jaietan saritua




SAN SEBASTIAN

IMPRESA Y ENCUADERNACIÓN DE J. BAROJA É HIJO
Plaza de la Constitución, 1, 2 y 3.

1907

ATV

31404





IDARTZAKO JAUNA





M- 70329
F- 74286

15V
31404

IDARTZAKO JAUNA

JOSTIRUDIA EGINTZA BATEN

JOSE ELIZONDO-K IDATZIA

eta Elgoibar-ko euskal jaietan saritua



SAN SEBASTIAN

IMPRESA Y ENCUADERNACIÓN DE J. BAROJA É HIJO
Plaza de la Constitución, 1, 2 y 3.

1907

EGINTARIAK

- IDARTZAKO zaluduna.
✓ LEKANDA Lekeitioko alkatea.
✓ LARRETA erritar ageri bat.
MENDEJA beste erritar ageria.
APALZ jauna errikoa.
LEON korrejidoria.
Erriko jende eta soldaduak.
-

Jostirudi onen gaia, Lekeition gertatu da.



Oraindik ere Adan de Yarza-enean dago gurutze bat Lekeitioko alkatearen eriotzen oroimengarritzat ipiñiya.



EGINTZA BAKARRA

Iruditegian agertuko da Lekeitioko erri-echeco inguru bat.

LENBIZIKO IRUDIA

I

LEKANDA ETA LARRETA

LEKAND. Ez Larreta; eziñ nezakio laga: lenago da erriya, Idartza ta Idartzatar guztiak baño.—Bein ere katetu ez dan erriyak, ez du aurrera ere katerik artuko, edo biziya galduko det alkatea naizenez.

LARRETA. Ez diogu laga bear nai duna egiten, zergatik urrengoan, burutik bera egingo liguke; ezdira gure legeak orrek deritzon erara biurtzekuak.—Lotzari andiya izango litzake gutretzat, bidageak oiñperatuko baginduzke.

LEKAND. Lekanda naizenakatik, eta asaben oroimen itzalgarrikatik, agintzen diot; ez dala berak nai dun orduan erriko meza ezango, ezpada erriko jendeari dagokionian; alperrik izango da Idartzako jauna; euzkaldunak jaun bat bakarrik daukagu: Jaungoikua!

LARRETA. Ori da itz egitia; berak on dagizula.

LEKAND. Gaur esango diot apaizari, ez dedilla erriko mezan iñoren zai egon ordua igaro ezkeror; Idartzak meza entzun nai badu, etorri dedilla ordurako bezteak bezela.

LARRETA. Orrela eutzi bear diogu asaben legiari.—¿Zer esango luteke euzkotarrak ori egingo ez bagendu? lagako bagino gizon mezdezlariari erriya katetutzen?

LEKAND. Esango luteke, makal batzuek gerala, gal-tzen ordez gonak jantzi bear genduzkenak.—Euzkadiko, obi guztiak zabalduko litzate-kez, ta ertengo luke madarikazio itzalenak; asaben madarikaziuak.—Tantai uztel baten antzera inauziko litzake Gernikako aritza; Aritz dontzua ¡Aitorrek ipini zindun zauden lekuan, zure adar zendo ta orri berdearen itzaltzian, euzkotarrak batu zitezen, laga zi-gun lege lokabetzua maitaturikan gordetze-ko.—¿Zer balio dute gure bizi guztiak, eta zañetan daramagun odol nazte gabiak, zure edeztiaren aldian?

LARRETA. Ondo esaten ari zera; lenago da azkoren ona, baten gurari zorua baño.—Gure ichaso orroitzuaren ur eriotzuak ikaratu ez dituzten gognak, ez ditu bildurtuko gizon gogaikarri batek.

LEKAND. Ez zan Idartza orrelakua Kastillara jun baño len; an ikazi ditu orrelako zitalkeriak.

LARRETA. Ez diyote bada emen ondo ertengo, Lunoko gañetik Aitorrek illargiaren bitartez, Jaun-goikuari ezkini ziolako gure erriaren zor-tuona.—Lenago goiak beia joko du, bida-gearen burditik lotuko gaituzten baño.

LEKEND. Urrengo igandian ikusiko da zein geiago
geran.

LARRETA. Zure aldetik izango nazu Lekanda.

LEKAND. Eskerrik asko Larreta; beti izan zera zu, la-
gun ona eta aberzale zintzua.

LARRETA. Banua bada, igandearte Lekanda.

LEKAND. Ondo jan Larreta.

BIGARREN IRUDIA

II

LEKANDA (*Bakarrik*)

Ez genduke bezterik bear, bidageak erriyen jabe
egitea baño.—¿Zertako izango litzake eun guda jatza-
rretan gure aurretikuak ishuri zuten odola?—¿Zer egi-
teko gure batzar naguziak darabilen legegintza?
goizetik gabea gizon zital batek menderatu bear
bagaitu?—Erregeak emandako eskubidea daukala dio;
erregeak gure artean eskubiderik baleuka bezela; ta
iñori emateko guchiago.—A Idartza! Zu gabirau lapu-
rra bazera, euzkotarrak, abendu egakoi erpa zorro-
tzak gerade; bazoko erpiñetan, bizi lekuak dauzkagu-
nak eta zuk baño goragotik egatzen degunak.—Gure
basoetako tantaiak eta Aitorren abenda, mundua beziñ
zarrak dirade, ta edeztia, eguzkiaren argiya bezin diz-
tariya; gauz ederrak dira auek aiñ errez galtzeko, ta
ez dira galduko Lekanda bat bizi dan artean, Barrabas
bera badator ere.—Ez du iñork esango Lekeitioko al-
katea gogamakalti bat dala.—Norteko izar ditzaritzua,
bidaldu egidazu ditzada batean zure ermetazun zen-
doaren zati bat, zure antzera ikararik gabe, egon na-
din nere lekuan.—Atozte asaben gogoak, nere gogo

aula indartzera.—Ekarri egidazute zuen egintz mire-
ritzuen oroimena, naitazun aberriti dontzu batek,
biotza gartu dakidan.—Nere Bizkaiko lurraren errai
burnitzuak; eman egidazute zuen burni guztia, bera-
rekin zaztadatu daiztan etzaien bularrak Aitorren
abenda lenargitia, katien pishu aztunak azpiratuko
dun baño len.

IRUGARREN IRUDIA

III

APAIZA TA LEKANDA

APAIZA. (*Sarturik*) Jaungoikuak dizula egun on
bat, alkatea.

LEKAND. Baita bedorreri ere apaiz jauna, ¿zer egin-
kizunek dakar onera?

APAIZA. Kristoren lege dontzuak agintzen diran
eginkizun batek nakar, au da: pakea era-
matea gudaren zale diraneri.

LEKAND. ¿Nork esan diyo emen gudaren zale danik
arkitzen dala?

APAIZA. Esan ezin nezaken leku batean jakin det,
zer asmo dauzkatzun urrengo igandeko erri-
ko mezarako.—Alkatea zeran aldetik pakea
erabilli bear zenduke, gudaren billa ibilli
gabe.

LEKAND. ¿Baña, nork esan diyo gezur ori?

APAIZA. Gudaren zale ez bazerà, laga egiozu dauz-
kazun asmoeri, Jaungoikoagatik.

LEKAND. Esan begit zer asmo char diran oiek.

APAIZA. Idartzaren jauntazunaren gañeko nazpillaga-
tik diyot.

LEKAND. Lenago ill bearko nuke orri lagako diotan baño.

APAIZA. Lekanda; kurutzean dagon arengatik, arrentzen dizut laga dagiozula zeta orri; asmo gaizto oieri.

LEKAND. Asmo gaiztoak! ¿asmo gaiztoak aldira, erriaren ona nai izatea? bidagearen mendian erori dediñ galeraztia? Orri lagako baniyo ez, nuke izan bear, ez Lekandatarra, ta ez ere Lekeitioko alkatea.

APAIZA. Ikaraz nauka igandian gertatu ditekenak. —Idartza gizon itzala ta zetotzua da; zuk ere ez diozu laga nai buruan zartu zaizun griñari; biyok orrela zaudetela ezin erten dezake gauz onak. —Jarreman egiozute kristau onaren legiari biotzeko deiari lagata. —Ikusten nago, zuen topakada izango dala, indarrez beterik dijoazen odei biren tunpadaren antzekoa.

LEKAND. Zazpi milla zutunparen orroiaren antzekoa bada ere berdin dit; Donanderen kurutzeagatik diyot: Kristaua nai det izan, baña bai euzkotarra ere; gañera ez det zikindu nai Lakandatarrak laga ziraten abizen garbia; au gertatuko balitzakit, damuaren indarrak eztanda eragingo likit.

APAIZA. A gizon zentzu gabiak! ¿Zertarako dira burrukak irudimen uztel batengatik? Zergatik laga bear diyozone betikotazuneko egi ongi-lleari, ludiko gauz gezurkorragatik? —Jainkode zoragarriak, antzutu dizkizute naitazunen jario zamurkorrak.

LEKAND. Ez neri beintzat; ez diyot iñori gaizki nai;

munduko gauzak ere, ez naute era orretan ichutzen.—Legearen gordatari bat naizenez, eziñ nezakiyo laga legea oiñperatu nai dunari.—Jaungoikuari ezkiñi nizan daukaten eginkizuna eta alkatetazunaren doakurtzak; baldiñ gaizki egiten baditut nere bearrak, berari aitortu bearko diyot, ekadoi itzaltzu aren aurrera irishtean; oraiñ artean errurik gabe egiñ ditut; aurrera ere egiñgo det alegin guztia erruari alde egiteko.

APAIZA. Etzi bearko det bada nere borondatezkua ezpada ere.—Lekanda: aitza baño gogorragua zera; azkenez arrentzen dizut, laga egiozu zeta orri, begiratu egiozu kurutzean dagoanari; zenbat erru eta gaizki egiñ, barkatzen dizkigun bere biotz amodiotzuak!

LEKAND. Ez det aztuko gure egintz guztien neurtzalea danik.

APAIZA. Banua bada guztiyon pakea berari ezkatuaz; urrengo artean Lekanda,

LEKAND. Bijua ondo jauna.—(*Berekautan*) Nik ere jun beardet erriko echera; igarri gabe joan zait denpora. (*Ertetzendu*)

LAUGARREN IRUDIA

IV

IDARTZA TA MENDEJA

IDARTZA. ¿Zer deritzozu Mendeja, alkatearen arrotazunari? Ez omenda nik agintzen detan ordnan erriko meza esango dio, zitalepurdi makalak, ¿Zertako daukat erregearen eskubidea eta

jauntazuna? alperrik naiz beraz Idartzako jauna.

MENDEJ. Esango dizut nere iritzian zer arkitzen diodan alkatearen arrotazunari.—Lekanda, Larreta eta erriko echean biltzen diran gizon agerienak diote eze; zu beziñ lenargitiak dirala eta euzkaldunak diralako iñoren aginduaren azpian egon bear ez dutenak; ¿Zer erantzun lezakiyozu orri?

IDARTZA. ¿Zer erantzun nezakiyon? Oien lenargitazuna baño aurreragokua dala nerea, Alfonso zortzigarrenak eman ziyolako Tolosako arbitzetan morueri irabazi ziyon guda jatzarran, Iban Idartzatar gudari auzarditzuari, bere egintz portzitzen zariez.—Ona emen zer erantzun nezakiyon arroputz oieri.

MENDEJ. Ori ere diyozun bezela izango da, baño euzkotarren lenargitazuna lenagokua da.—Diozun Alfonso baño milla urtez aurrerago euzkotarrak porrokatu zituzten erromatarren martiztiak Errezillen eta bezte leku askotan; baita ere Erroman bertan gizonez gizon garaitu zituzten.—Cesar Augustok, aitortu zuan mundu guztiak aditzeko eran, euzkotarren lenargitazuna.—¿Zer deritzozu orri?

IDARTZA. Baezpadako lenargitazuna dala arrotzak emandakua.

MENDEJ. ¿Ez altzan arrotza Alfonso zortzigarrena?

IDARTZA. ¿Nun izango zan Kastillako erregea izanik?

MENDEJ. Nerezat aiñ arrotza zan Alfonso nola Augusto, zergatikan naiz bateren naiz beztearen denporan, ez zirau euzkotarrak, ez Kastillatarrak ta ez ere erromatarrak.



IDARTZA. Nik echean daukat lenargitazunen egikaia.

MENDEJ. Euzkotarren lenargitazunena edeztian dago eta Gernikako aritza da burautorlea.

IDARTZA. Nai dun erara baldin bada ere berdin dit; nik ez diot lagako nereari, Idartzatarra naitzenaldetik; onian ona nazu, baña charrian ekaitza bezelakua.

MENDEJ. Nai dezuna egingo dezu nigatik, baña ez dezu ondo egingo, euzkotarra zeran aldetik.

IDARTZA. ¿Zer euzkotar ta zer erdaldun, danok bat baldin bagera?

MENDEJ. Ez dira bat gure abenda ta erdaldunena; —Zarauzko obitako buru ezurrak eta Kastillako erri batekuak neurtu zituzten gizon jakinti batzuek, ta alde aundiya arkitu zioten bata bezteagandik.

IDARTZA. Oiek esanak dira Mendeja; emen ere badira buru aundiak ta chikiak, an bezela.

MENDEJ. Ez dago chiki aundiyan alde ori ezpada egikeran; dago bekokiaren gañetik zudurraren sustraira ta zudurraren sustraitik, belarrira dauzkagun neurrietan.

IDARTZA. Oiek atzokeriak dira; danok gera bat.

MENDEJ. Naikua degu ezandakoekin. Abur Idartza; ondo bizi. (*Ertetzendu*).

IDARTZA. ¿Bazuaz? Ondo jun Mendeja.

BOZGARREN IRUDIA

V

IDARTZA (*Bakarrik*)

¿Au ez alda arritzekua? Danak daude alkatearen alde.—Baña naikua naiz bakarrik ere, oien arrokeriak

— 13 —

aizia baño pizkorrago dezegiteko.—Damutu bear zaite ni aña izan naiak; ez luteke far gaizki egingo berea-kin ertengo baluteke; ez naute ondo ezagutzen; lenago inpernuaro su emango diyot Lekeitiarrak nere bizkarretik irri egingo duten baño.—Beren abenda, edezti ta aritzak, berritzukeriyak dira.—Jaungoikuak gorde bearko du alkatea, igandian ni jun baño lenago, erriko meza azten baldin bada.—Zutokare bat daukat bularrean, nazte oni erazo giñon ezkerro. A zuri Lekanda zutokare onen zuak artzen bazaitu! errukigarri bearko dezu.—Eta Larreta bere lagunekin, nik asmatuko det nola ezi bear diran.—Ez da eliza leku egokiya nere asmoaren egikerarako, baña egiten diran lekuan erruak ordaintzia, deritzok gauzarik egokiyena izango dala.

SEIGARREN IRUDIA

VI

IDARTZA TA APAIZA

- APAIZA. (*Sartutzen*) Jaungoikuak dizula egun on bat Idartza.
- IDARTZA. Ongi etorria bedi apaiz jauna; ¿Zer diyo azpaldikuak?
- APAIZA. Gauz onik ez orainguan beintzat.
- IDARTZA. ¿Ain charra alda?
- APAIZA. Guztiz gogaikarriya.
- IDARTZA. Baña ez du nerekin zer ikusirik izango.
- APAIZA. Ain zuzen zurekin dauka zer ikusi guztia jakin nai badezu.
- IDARTZA. Esan bedit azkar zer dan, bakentziatik er-teago ez badet.

APAIZA. Aditu egidazu ondo, esatera nijoakizutana. —Jaun altzu baten antzera, erriya menderatu nayian zabiltza, erregearen eskubidea daukazulakuan.—Jakiñ bear zenduke euzkotarra zeranez, euzkotarren gauzetan, erregeak ez daukala zer zarturik.—Erriko gauzetan alkatea da burua, ta onen gañetik batzar naguzia dago bakar bakarrik; beraz Lekandak agintzen dun orduan ezango da erriko meza, urrengo igandetik aurrera.

IDARTZA. Ez da izango ni bizirik banago.—Oien legearen gañeko esanak, ipuiak dira; ez dago erregearen gañetiko agintaririk.—Errege batek Iban Idartzatarrari eskubide ori eman ziolako, neri dagokit eta ez det etziko bizi naizen artean; ez da izango gauz ori oiek nai duten erara.

APAIZA. Gaizki bearko dezu bada; erriko guztiak alkatearen aldeko dira; obe zenduke etziko bazendu Idartza; ortik ez dezu gauz onik aterako.

IDARTZA. Ez du orrelakorik ikusiko Lekeitioko erriyak.

APAIZA. ¿Baña zer dizu gauz utz orrengatik? Ortik irabazirik bazendu, ez det ezaten nai izatia, agintariaren eskubidea, baña buruko miña emango dizun gauzari jarraitzearekiñ, geigo galduko dezu irabazi baño.

IDARTZA. Burua puzkatzeko añeko miñak eragiten badizkit ere, berdiñ dit; ez det oien irrigarri izan nai; jaiuak geundeke!

APAIZA. O Egille mireritzua! Zer erru aundiya egiñ zenduan onelako gizonak egiteakiñ! Aurrian

daukaten leiz eriotzua ikuzten ez duten ichu gizarajo auek zortzeakin! Idartza zu ez zera kristau ona.

IDARTZA. ¿Zergatik esaten dit ori?

APAIZA. Arpegiyan ezagun dezu gauza gaiztoren bat egiteko asmoa daukazula.

IDARTZA. Bear ez danik ez det egingo ez bildurrik izan.

APAIZA. Ez egizu aztu euzkotarra ta kristaua zera-nik; agertu egidazu zure barruan daukazu gogo galgarri ori Idartza.—Bozt zauriakatik arrentzen dizut; zuk zomorro pozoitzu bat daukazu biotzean; aitortu egidazu egiya.

IDARTZA. Eziñ esan nezake bezterik, ezpada, zapo likardatzu bat zapaltzen dan bezela, zapaldu nai ditutala nere etzayak.

APAIZA. Etzai gaiztoak beregandu zaitu; inpernuko su guztia aldian daukazu. ¿Gurazoak erakutzi alizitzen lagun urkoa gorrotatzen?

IDARTZA. Gurazoak! gurazoak ill ziran; oraiñ ni naiz neronen gurazo.

APAIZA. Ichu gizarajua! egun negargarriya izango dezu zure biziyaeren atzena.—Damuaren suge mishkorrak jango dizkizute erraiak;—Jaso egitzazu begiak zerurutz, ludiko gauza thatharrak azturik;bertan arkituko dezu alden-du dezun pakea, ta aingeruak jachiko zaizkitzu gorrotuak ereki dizkitzun zauriak osatutzero. Ene gogoko semea; belaunikaturik eskatzen dizut.

IDARTZA. Jaiki bedi; ez dit onik egiten orrela ikuzteak.

APAIZA. Ez; emendik artu ber dezu asmo ozazuntzu



bat.—Eskatu egiozu Donegogoari bear dezun argitazuna, zure egintzak zuzendutzeko.

IDARTZA. Berandu da onezkero; eziñ nezake atzera egiñ.—Esan begio Lekandari laga degiola berriari, ta orduan ez da zer esanik izango.

APAIZA. Alperrik ari naiz aitzak bigundu naian; bazatiak domatzeko azmoan, zerutik ez badator Jaungoikozko ziargi bat auen adimenak argitzero.—Azpeltu naiz egiya erakutzi eziñik; banua Idartza (*joaten da*).

IDARTZA. Bijua ondo jauna.—(*Bakarrik*) Apaiza ere beren aldetik daukate, baña ez dit ajolarik.—Basamortuko legoiak ere ez lirake naikua izango neri atzera eragiteko —Aldiyan beñ ikara egiten dit biotzak. ¿Zer gatik eteda? Eteda gauza gaiztoren bat egitera nuralako? Ez da gaiztoa etzaiak zapalatu nai izatea; apaizaren esanak eragingo ziraten ikara au.—Lagun urkoa maitatu bear dala diyo; Lekanda lagun urkotzat artu baño lenago otzua artuko nuke.—Berriz biotza ikaraka daukat; ¿Biotza, ez akit limuritu gizon ezereztzu batzuekatik!

ZAZPIGARREN IRUDIA

VII

LEON TA IDARTZA

LEON. (*Sartzen*) Egun on Idartza; ¿ondo alzaude?

IDARTZA. Ona emen azpalcikua; Ondo ta zu?

LEON. Ez aiñ gaizki ere.

IDARTZA. ¿Berri onak aldakazkizu Kastilla aldetik?

LEON. Balladolitik etorri naiz; ikusi det enperado-
ria; bertan nengoan etorri zanean Alemania-
tik.

IDARTZA. ¿Ondo artu aldute?

LEON. Erriko jende ez jakiñak bai, baña lenargi-
tiak, bekoki illuna ipiñi zioten.

IDARTZA. ¿Zer dalako?

LEON. Alemantar zaldun asko ekarri ditulako bere
serbitzaritzat; Kastillako lenargitieri urruñ-
kada galanta eman diote orrekiñ.

IDARTZA. ¿Zer asmo daukate bada lenargitiak?

LEON. Erriko beenarekin bat egiñ dute, enperado-
riaren ama erregintzat deiturik.

IDARTZA. Ikuzgarriya izango da ori. ¿Iruditzen al-
zaizu ezerki aurrerátuko dutenik?

LEONEK. Zeñek daki zer nazpillek ertengo dun.—
Brabo, Padilla ta Maldonado lenargitiak, dira
buruzariak; berengandu dute erregiña; jen-
diak esatendu ez dakit ziñez edo gezurrez
zoraturata dagola erregiña.—Zisneros-ek dio
ez diotela barkatuko, eta biraldu du martizti
bat komuneruei guda egitera.

IDARTZA. ¿Zeiñ dira komunernak?

LEON. Erregiñaren aldeko jaiki diranak; Zisne-
ros-ek porrokatuko ditu zalanzarik gabe.

IDARTZA. Emen ere bear da Zisneros bat.

LEON. ¿Zertarako?

IDARTZA. Emen ere badauzkagulako geren komu-
neruak.

LEON. Ez da ori egiya izango.

IDARTZA. Bai gizona; alkatea lenengo dala.

LEON. ¿Nola esan dezu ori? Egidazu mezede nola
dan esatea.



IDARTZA. Jakin nai badezu, aditu egidazu ondo:—
Idartzatar Ibanek, Alfonso zortzigarrenak
emandako eskubidez, zeukan erri onetan,
erriko mezako orduaren aginpidea; alkateak
ta erriko agerienak eragotzi nai dirate Iba-
nen gandik datorkidan jauntazuna. ¿Zer irish-
ten diozu Leon?

LEON. Ez diozula laga bear zure jauntazunari ezer
gatik ere.

IDARTZA. Orretan nago ni, baña erriko guztiak al-
katearen aldeko dira.

LEON. Ez dezu bildurtu bear; oiek ez dira iñor.—
Ni naiz korrejidoría, ta enperadorearen ize-
nean nik dakit zer egiñ, bear balitz indarri-
kan oieri autzak aztintzeko.

IDARTZA. Asko zorko dizut laguntzen badirazu Leon.

LEON. Ziurtzat euki dezakezu lagunduko dizu-
tala; igandian nere mendeko soldaduekin,
zure aldetik izango nazu, erriyari su eman
bear bazaio ere.

IDARTZA. Milla ezker dizkizut Leon; nere echea, ta
lagunaren bezuak, beti egongo dira erekita
zuretzat.

LEON. Gaur albizatuko diyot Bilboko Gutierrez
kapitanari, bidaldu dakidazela berrogei sol-
dadu; naikua izango dirala uzte det nazpillo-
zuak ishildu eragiteko.

IDARTZA. Guazen orain nai badezu, erriko echeruntz,
ze berri dagon jakitera.

LEON. Nai dezuna, goazen.

Iruditegiko ezkuta-zapiya erachi bear da.



ZORTZIGARREN IRUDIA

VIII

Iruditegian agertu bear du, elizaren barrunpeak meza esateko denporan.

LEKANDA, LARRETA, MENDEJA *eta* erriko jendea meza entzuten daudela, agertzen dira IDARTZA *eta* KORREJIDORIA beren soldaduakin.

IDARTZA. ¿Zeñek nere berri gabe agindu du meza esaten asteko ni etorri baño lenago?

LEKAND. Nik: ¿Zer daukazu zer ikuzi orrengatik?

IDARTZA. ¿Zeiñ zera zu, ez dagokizun eskubide ori zeregantzeko?

LEKAND. Lekeitioko alkatea naiz: beraz neri dagokit iñori baño lenago, erriko gauza bat dalako.

IDARTZA. Zu berritzu likitz bat zera.

LEKAND. Gauden lekuan ez bageunde, esango nizu-ke zer naizen, egundoko azkarren.

IDARTZA. Erten egizute danok emendik; azkar!

LEKAND. Erten egizu, nik agindu ta ateratzea nai ez badezu

IDARTZA. ¿Zuk agindu ta nik erten? ¿Idartzako jaun bat zuk atera? ¿Zazpi milla arrayo! Eutzi merezi dezuna.

(Ateratzendu daga bere gerriko ubeletik ta zartzen dio Lekandari bularretik).



LEKAND. (*Erortzenda esanaz*) ¡Jaungoikua! (*Bereala juten zaio apaiza eta bezte lagunak eutzi-tzero*).

APAIZA. Lekaanda ene semea; ill zaitu.

LEKAND. (*Eriotzako larriez*) Jauna, aditu begit azkeneko autormena.

(*Lekandak egiten dio autormena ishilik apaizari; gero erortzen zayo burua alborutz, biziak igez egin diolako.*)

APAIZA. (*Idartzari*) ¡Satanasen semea! ¡Kain eriozgillea! azkenerrako egindezu nai zenduna. — Errian zan gizonik onena ill dezu ¡Gizadongea! Jaunaren echean ishuri dezun odolaren mancha, zure odol guztiaren ordiaz ere, ez zenduke garbituko, birau orrek.

LARRETA. ¡Biraua! Alde egizu emendik; zu ez zera gizonen artean bizi bear dezuna. Zuaz bazoko bazatiekin bizitzera.

IDARTZA. Ishillik ez bazaude zuri ere lazter egingo dizut bezte orrenbezte.

LARRETA. ¿Neri? Gezurrak erten dizu, petral igungarri orri.

Idartzak eta Larretak, ateratzen dituzte beren ezpatak, alkarri erazotzeko azmoakin, baña bezteak bitartetzen dira, alkar eritzea galerazirik.

APAIZA. Idartza, alde egizu emendik, kurutzean dagon orrek gauza ikaragarriren bat egiñ baño lenago. — Zure bizi guztiko penitentzia bearko dezu orren barkazioa irichitzeko. Zuaz birautu dezun eche dontzu onetatik.

LEON. Idartza, goazen emendik; bear baño geiago egiñ dezu.



IDARTZA. Geiago ez: bear zana baizik. Guazen bai, aundiyagua egin ez dagitan.

Idartza ta Korrejidoria beren soldaduekin ertetzen dute.

APAIZA. Lekanda! Jaunak artuko al zindun bere onduan onezkero, aberriagatik irichi dezun eriotz omengarriagatik.—Zu bezelako gizon askoren premiyan dago Bizkaya.—Lekeitia-rrak; egizute alegiña zuen alkate izandakoa-
ren egintz oroimengarriak berdintzeko.—Erriaren onarengatik bizia galdu dulako, ez-tuntza ziargitzu batez burua zirkundurikan Jaunaren aurrean begi une onetan, kristau onari zeruan ematen zaion saria artutzen.—Eraman egizute gorputz illotza, erriko eche-
ra, erritar guztiak agur egiñ dezaioten, mar-tiri edo zinyopa omentzu orri.

LARRETA. Guazen gizonak erriko echera berorekin.
Gizonak jazotzen dute Lekandaren gorputza, ta ertetzen dute guztiak apaiza bakarrik lagata.

APAIZA. Gure Jaungoiko guztiz altzua, aditu egizu nere otoitza.—Guztia leikezuna zeradenez, igo eragiyozu zure jargoiaren oñetaraño, Le-
kanda zanaren animari, betikotazuneko bizia emanaz.—Parkatu egizkiyozu lengo erruak, irichi dun azken onagatik.—Artu gaitzatzu zure bezo indartzuaren laguntzapian, Euzka-
diren etzaiak garaitu ditzagun, ta bidaldu egizkiguzu zure gogoko doaiak, pakezko al-biztari baten bitartez. (*Ertetzendu*).

(*Iruditegiko ezkuta-zapiya erachi bear da.*)

BEDERATZIGARREN IRUDIA

IX

Iruditegiak len bezela agertu bear du.

LARRETA ETA MENDEJA

LARRETA. Beriala jakin nuben Italia zala, Idartzak alde egin zuben lekuba.

MENDEJ. ¿Zerk eragin ete zion jute ura?

LARRETA. Nik jakin detanez, gogagiro charrak. Lekanda zanaren eriotzaren oroimen itzalak, aldentzen zion pakea, irudimen uztelak gogora erakarririk.—Idartzak berak zion eze; egunoro agertzen zitzayola, Lekanda, bizi bizirik, naiz gauaz naiz egunaz bularrean dagakin egin zion zulotik odolezko iturri bat zariyola. Agintzen zion Lekandak odol artatetik edateko; odol guztia antzutu nayan edaten zuben matrall ezurretako miña egin arteraño, baña zenbat eta geiago edaten zuben ainbat geiago ertetzen zan iturri gorri artatik, bere berotasun sukartzuak, egarri aze eziñdakua eragiten ziyola.

MENDEJ. Ez zegon Idartza ondo; irudimen oyek, eriotza eragin zion etzai gaiztoak aurkezten zizkan.

LARRETA. Bezte batzuetan agertzen zizayon eleizako

inguruan; eramaten zuben ateraño eta agintzen ziyon sartzeko; atea erekitzen zubenian ertetzen zan barrutik gar kishkartzu bat eta aotik barrura sarturik erretzen zizkan errayak. Suaren gañeko aldian irakurten zuben esangi bat esaten ziyona ;Donauzlea! (1)

MENDEJ. Errukariya da Idartza; egiñ bazuan ere ez diyo merke erten.

LARRETA. Ez du guchiago bear, egiñ zuan erailltea (2) ordaintzeko; erregek parkatu ziyon, baña ez Aita Santuak.

MENDEJ. Zer bada?

LARRETA. Eragotzi ziyolako Lekeitioko eleizan sartzia.

MENDEJ. Nundik nora jakin da eragozpen ori?

LARRETA. Aita Santuandik etorri zizayon apezpiko (3) jaunari agindu bat ori esaten, eta apezpiko jaunak apaizari bidaldu ziyon, Idartzari jakin eragiñ asitzeko.

MENDEJ. Beraz erregek parkatu ziyon erailltea, ez ziyon Aita Santuak parkatu nai izan?

LARRETA. Aita Santuak eziñ jazo lezake ish-ri era-
giñ zuan odola: Jaungoikuak pakarrik parkatu leikiyo, baña orretarako damutazun garratzak minberatu bear du.—Aita Santuak, bere jauregiyan elizacho bat egiteko eskubidia eman ziyon Idartzari, bertan meza bat erazan dezan Lekanda zanaren arimagatik.

MENDEJ. Ez deritzot gaizki egiña gala zergatik Idartza Lekeitioko elizan sartuko balitz, Lekanda

(1) Sacrilego.

(2) Asesinato.

(3) Obispo.

zanaren odolak gorrituko luke eleiza guztia,
lekeitiarrak minberatuaz.

LARRETA. Orain da urtia gizon erru gabeko ura ill
zuala, baña urte bete orretan ez det uzte ordu
bateko pakerik izan dunik. Gizarajuari ager-
tzen zitzaikan ondo, minbereak eragin oiditun
biyurrunak; ez diyo merke erten bere jaun-
tazunak! — Erriya lakitzeko (1) jauntazuna
bidagetzua (2) da; Jaungoikuen legearen
etzaia; argatik Idartzak bere jauntazunaz
erriya lakitu nai izateakin, landu ditu bere-
tzako katiak, eta betiko zorigaitza. ¡Erruki
dezagun!

AMARGARREN IRUDIA

X

LENAK ETA APAIZA

APAIZA. Arratzalde on dagizula.

BIAYAK. Bai bedorri ere.

APAIZA. Zer itzaldi (1) darabilzute?

LARRETA. Idartzagatik diardugu: bere joaira zergatik
izan zan ari nitzayon esaten Mendejari.

APAIZA. Joaira negargarriya izan zan gizarajo are-
na; emen arkitzen ez zuan pakea naiyan, jun
zan Italiko gudara.


MENDEJ. Jun ezkero jakin aldu aren berririk?

APAIZA. Bera agertu zat gaur; gudari lagata etorri
da Lekeitiora.

(1) Esclavizar.

(2) Tiránica.

(3) Conversación.



BIYAK. ¿Lekeition dago?

APAIZA. Bai gizonak; Zeriñolako guda jatzarran eritu zuten arkabuzez, eta gudako gai ez zalako, Gonzalo Kordobakok bidaldu du onera gudarako gaitu arteraño.

LARRETA. Ez ziyoten chikiya eman beraz Zeriñolan. ¿Eta pakerik beregandu duanik, al diyo?

APAIZA. Bertan egon dan denpora guztian agertzen zitzayon Lekanda, baña echeratu danetik ez eizayo agertu.

LARRETA. Mireritzua deritzot dala, an bai eta emen ez agertze ori.

MENDEJ. Mireritzua da bada ondo begiratzten badiogu, elizachoa egiñ dubelako eteda?

APAIZA. Izan leikena da; baña alaz guztiz ere, eziñ biyurtu leikiola diyo bere gogoari galdu dun pakea.

LARRETA. Nik ziñeztu; ez diyola biyurtuko, alegiñ guztiakatik ere.

APAIZA. ¿Nork ezan du?

LARRETA. Jaungoikuak ordaindu naiko diyo Lekandaren erailtea; gogoko pakia ukatzen diyolarik.

APAIZA. Ez egizu siñeztu. Denporak aztu eragingo dizka oraingo mingoztazunak; ez dirala betikuak ezan oida, ez atzegiñak ta ez ere atzekabeak.—Jaungoikuak daki bere umeak noiz bear degun atzekabien osakera eta gerora begira egon gabe, bidaltzen digu bere gogoko ezkar osagarriren bat.

LARRETA. Nekez bidalduko diyola uzte det ezkar ori Idartzari.

APAIZA. Ez Larreta; jendeakingo bizikeran, Idar-

tzak arkitzen ezpadu atzegiñikan, arkitu dezake Jaunaren serbizioan bezte doakabetzu azkok arkitu duten bezela.—Arimako zaurien ur osagarriak bere alboko sauritik sortzen dira; dijala Idartza beragana, edan begi iturri dontzu artatik dariyon ura. Berak zendatuko du.

LARRETA. Muzkilldutako lurrari alperrik izango da, ura botatzia; inpernuko sun ere eziñ diteke ichazo guztiaz itzali.

APAIZA. Baña bai Jaungoikoaren, borondatez, itzali diteke.

LARRETA. Berak baliyo bearko diyo, zoriona irichiko badu.

APAIZA. Zoriona irichitzeko bidean dala uzte det, Jaunaren zerbitzari jun nai duala esan dit.

BIYAK. ¿Praille?

APAIZA. Bai; praille nai du jun.

MENDEJ. Berak on dagiyola, gizarajoari, zuzen azmatu du ori nai izateakin.

APAIZA. Orretara oidira bizikerako aldarteak; jauntazuna baño naiyago ditu prailleen zerrezta-zuna eta neke latzak; igarri diyo munduko lazeriari.

LARRETA. Jun dedilla ordu onian.

AMAIKAGARREN IRUDIA

XI

LENAK ETA IDARTZA

Sartzen da Idartza praille jantziyan

LARRETA. ¡Ara bera!

MENDEJ. ¡Idartza!

DARTZA. Bai, ona emen Idartza izanduba, len doakabez betea, eta orain arkitu dubana zoriona Jaunaren serbitzari eginda. Nik jazo nuan (*bezua jazuar*) bezo erailltzu au, Lekeition zanik gizonik onenaren kaltean. O jauntazun goitzuntiya (1) zer erru aundiya eragiñ zirazun! Milla bizi galdu bear banitu ere emango nituzke, Lekanda, zure biziagatik! Zinyopa omentzua; ill ziñuztan eta Jaunak bizirik nauka! Ta eguzkiaren ziargi bizgarriak munka narabill eraille gorrotagarri au! Ta choriyen kanta pozgarriak darantzuz nere entzumenak, lenago artezan (2) cnak entzun ezta. ¡O Egille mireritzua zeñen aundiya dan zure errukimena!

APAIZA. (*Idartzari*) Ene semea! Zeñen ederra dan zure Jaunaganako biyurkera; gaurtik aurrera doatzu izango zera.—Azkenerako ere, Jaunak bidaidu dizu zuretzat gorderik zeukan ezkarra.

LARRETA. (*Berehautan*) Gezurra dirudi lengua danik ere, Jaunak egiñdu mireriren bat.

IDARTZA. Ontzat dauzkat Jaunak igaro eragiñ dizkidan atzekabe guztiak, bidaldu diralako, nere erruari antz emateko argimena, eta nere biotzari damutazun garratza eragiñ diyolako. Arantza neukan lekuan, lora ederr bat zortuzat.—Lekeitiarrak; banua bada Jaunak deitzen diran leku bakardetzura, baña jun baño len (*belaunikzenda*), belaunikarik parkia, ezkatzen dizutet. ¿Parkatzen dirazute?

(1) Soberbio.

(2) Consejo.

GUZTIOK. ¡Bai, bai...!

IDARTZA. Irautu nai izan ziñuzten nere jauntazuna-
kin, baña asabenkeris omentzuak zaitu zuan
gure lege zarra, nere bidage-zaletazuna (1)
milla zati egiñaz.—Zaintu egizute aurrera
ere, erme ta zintzoki ta oraiñ nere joairako
deitu dezagun danok:—¡Gora Jaungoikua
ta lege zarra!

GUZTIOK. ¡¡Gora...!!



BUKAERA



(1) Tiranofilia.

